

Erabateko elkarreragingarritasuna bere bezeroentzako eta arreta-gune gehiago sare handiagotu batean

Kutxabankek Cajasurrekiko bat-egitea burutu du integrazio teknologikoa osatu ondoren

Finantza-taldea hazkunde- eta dibertsifikazio-etapa berri batean murgilduta dago, bere plan estrategikoak (Benetan 2025-2027) bultzatuta, hiru zutabe nagusirekin: bezeroak, pertsonak eta eraldaketa teknologikoa eta digitala

14.2.26. Kutxabankek amaitu du Cajasurrekiko bat-egitea, gaur arratsaldean prozesuaren azken fasea burutu ondoren, integrazio teknologikoa. Horrela, Andaluziako bankuko bezeroak erabat integratuta geratu dira erreferentziatzko finantza-talde batean –sektorean dagoen kaudimendunen eta kapitalizatuenean–, zeina hazkunde- eta dibertsifikazio-etapa berri batean murgilduta baitago, bere plan estrategikoak (Benetan 2025-2027) bultzatuta, hiru zutabe nagusirekin: bezeroak, pertsonak eta eraldaketa teknologikoa eta digitala.

Integrazio operatibo eta teknologikoarekin, bezeroek arreta- eta zerbitzu-gune gehiago izango dituzte sare handiagotu batean: Cajasurreko bezeroentzako sarea hirukoiztu egingo da eta kutxazainena, berriz, lau aldiz baino gehiago; Kutxabankekoentzat, bulego- eta kutxazain-sarearen hazkundera % 30koa eta % 20koa izango da, hurrenez hurren

Taldean elkarreragingarritasun erabatekoa denez, bankuko bezero bati edozein bulegotan eta kanal digital bakar batetik erantzuten zaio kontsultak eta kudeaketak egiteko, eragiketak egiteko, produktuak kontratatzeke eta abar.

Era berean, taldeko bezero guztiek funtzionalitate berberekin jarduten dute estatuko geografian barrena hedatutako sareko edozein kutxazainetan, dirua ateratzeko, saldoak kontsultatzeko, transferentziak egiteko eta abar; eta kosturik gabeko transferentziak egin ditzakete haien artean.

Hazkunde- eta dibertsifikazio-etapa

Kutxabankek bezeroen hazkundeari begirako etapa bati heldu dio, produktu-sorta zabalagoarekin eta haien esperientziaren hobekuntzan eta pertsonalizazioan ardaztuta, eredu omnikanal aurreratu baten bidez, bezeroak bere eguneroko jardunean aukeratzea lehenesten duena, digitalizazio gero eta handiagoa bulegoko kudeatzaile baten arretarekin konbinatuz.

Dibertsifikazio-etapa horretan, erabakitasunez egin du apustu finantzaketa-soluzioak zabaltzearen eta pertsonalizatzearen alde, bai eta partikularrei, familiei, enpresei (konpainia handiak eta ETEak, mikroETEak eta autonomoak) eta erakundeei kreditu-inbertsioa handitzearen alde, eta ondare-kudeaketaren (banka Pertsonala, Premium eta Pribatua) eta inbertsio alternatiboaren alde ere.

Sektorean erreferentea

Kutxabank aintzatetsia da sektorean eta kalifikazio-agentzietan bere finantza-sendotasuna, aktiboen kalitatea, emaitzen egonkortasuna eta Espainiako eta Europako finantza-sektorean kapital posizio nabarmena konbinatzeagatik. Era berean, zuhurtasunean, dibertsifikazioan eta sendotasunean oinarritutako ereduari balioa ematen diote, zeinak hazkunde-estrategian bankuak duen posizioa indartzen baitu ingurune operatibo lagungarri batean.



Europako Banku Zentralak (EBZ) Europako Banku Agintaritzarekin (EBA) eta Arrisku Sistemikoko Europako Batzordearekin (ASEB) lankidetzan egindako azken Stress Test 2025 europarraren arabera, Kutxabank da Espainiako finantza-sistemako erakunde kaudimendunena, eta Europan lehenengoen artean dago. Halaber, urtero aipatzen da munduan jasagarritasunaren arloan jardun onena duten konpainien artean, Morningstar Sustainalytics ESG Risk Ratings 2025-en arabera.